Gela:LH4A

URAZAINDU!(Doinua:Erriola)

Zabaldudezagunura
herrialdeguztietara.
Denok behar dugu ura
bizitzekomunduhonetan.

Ura ez dugu xahutuko
ezta kutsatuko ere.
Behar duguna erabiliko
eta zainduko betiere.

Tanta gora, tanta behera
Ura zaindu!
Egunero, tantaz tanta
Ura aurreztu!
Gure planeta zainduko
Ura zaindu!
Kilometroz kilometro
Natura!
Zaindu!

Euri ura jasoko
gero berrerabiltzeko.
Soberan dugun ura ere
landareak ureztatzeko.

Txorrota itxi behar dugu
xaboiak jartzerakoan.
Zaborra zakarrontzira
ibaiak ez kutsatzeko.

Tanta gora, tanta behera
Ura zaindu!
Egunero, tantaz tanta
Ura aurreztu!
Gure planeta zainduko
Ura zaindu!
Kilometroz kilometro
Natura!
Zaindu!

Bainatu ordez dutxatu
ur gutxiago gastatzeko.
Garbigailua bete arte
ez dugu martxan jarriko.

Ura gure altxorra
bizitzaren iturria.

Zaindu dezagun denok
natura eta herria!

Gela: LH4B

UR PUTZU GARA GU (Doinua: Ze arraroa)

Arraroa da hemen iturri bat urik gabe
mundu guztia ordea ez da uraren jabe.
Ura gara gu ta garena ura da,
eta urik gabe, gu ez gara!

Modu arduratsuan ibili beti ura
bainatu ordez hobe dutxa azkar bat burura.
Ura gara gu, ta garena ura da,
eta urik gabe, gu ez gara.

Ur putzu gara gu
ura behar dugu
Ura uretan, ura garela gu, GLU, GLU, GLU, GLU (bi)

Iturriko txorrota neurr-neurrian ireki,
garbigailua lepo, piztu aurretik beti.
Ura gara gu, ta garena ura da,
eta urik gabe, gu ez gara.

Zaborrik ez isuri gure erreketara,
berriz gugana dator doana uretara.
Ura gara gu, ta garena ura da,
eta urik gabe, gu ez gara.

Ur putzu gara gu
ura behar dugu
Ura uretan, ura garela gu, GLU, GLU, GLU, GLU(bi)

Bizidunok biziraun dezagun behar ura
ekidin kutsadura eta zaindu natura.
Ura gara gu, ta garena ura da,
eta urik gabe, gu ez gara.

Ura da guretzako altxor beharrezkoena,
ura ondo zaintzeko egin gure esku dena.
Ura gara gu, ta garena ura da,
eta urik gabe, gu ez gara.

Doinua: Erriola
Gela:4C

ZAINDU URA

Bainua ordez dutxatu
ta denbora neurtu5
xaboia kendu ta gero
azkar-azkar bukatu

Ura ez da jolasteko
guztiok behar dugu bai!
Globoekin jolasteaz,
amaitu dezagun orain!

Ura zaindu behar dugu,
hobe aurreztu
guztiok behar dugula
bizitzeko!! badakigu!
edateko, garbitzeko,
freskatzeko,
planetak behar duela
argi dugu!
badakigu!

Planeta lehortzen aida
ta zaindu dezagun ura
bestela mundu guztia
geratuko da lehorra.

Kutsadurarik ez, mesedez
askoz hobeto izango da
zaindu gure planeta
itsaso eta erreka

Ura zaindu behar dugu,
hobe aurreztu
guztiok behar dugula,
bizitzeko!! badakigu!
edateko, garbitzeko,
freskatzeko,
planetak behar duela,
argi dugu!
badakigu!

Badugu eskubidea
ura izan ta_edateko
ez da ordea, iristen
mundu guztiarentzako.

Planetak ura behar du
bizirik egoteko gu
etxeko bizia zaindu
ur gutxiago gastatuz

ABUELA MAITEA DOINUA - Ura aurreztu, gure etorkizuna zaindu - 4D

Ura behar dugu denok, ez dezagun alferrik galdu
Kontsumoa murriztuz, gure mundua zaindu

Hortzak garbitzen ditugun, itxi dezagun txorrota
Eskuak garbitzerakon, ez utzi ura alferrik
Dutxa laburrak hartuta, ura aurreztuko dugu
Bainu luzeak baztertuta, ur gutxigo gastatuko dugu

Arropa garbitzeko ere, bete dezagun danborra
Ontziak batera garbitu, ez utzi txorrota

Ura aurreztu dezagun, denok batera gaur
Gure 4D gelakoek, badugu zer egin
Tanta bakoitza altxorra da, ez dezagun alferrik galdu
Ohitura onak hartuz, ura zainduko dugu

Ura gehiegi gastatzeak, lehorteak ekar ditzake
Ibai eta urtegiak, urik gabe gera daitezke
Euri ura bilduz gero, landareak ureztatu
Ur gutxiago erabiliz, etorkizuna zaindu

Ura aurreztu dezagun, denok batera gaur
Gure 4D gelakoek, badugu zer egin
Tanta bakoitza altxorra da, ez dezagun alferrik galdu
Ohitura onak hartuz, ura zainduko dugu

Ura zaindu!
Ura zaindu!
Denok batera!